




Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen Udal-Ordenantza

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua indarrean sartzearekin batera, ordenantza hau ematen da udal-araudia indarreko legedira egokitzeko helburuarekin, bide publikoetako ordenari, segurtasunari eta bide horiek erabiltzeko moduei eragiten dietelako erregulazio-xede beraren barruan sartzen diren arauak barne hartuta (1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa; 320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa; 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa; 818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa)



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

XEDAPEN OROKORRAK

ARAU OROKORRAK

I-Bide Seinaleak

II-Oinezkoak

III-Bizikletak

MOTORDUN IBILGAILUAK

I-Zirkulazio Arau Orokorrak

II-Zirkulaziorako Mugak

III-Gelditzea eta Aparkatzea

IV-Zamalanak

V-Zirkulazioa Antolatu eta kontrolatzeko Neurriak

VI-Ibilgailuak Ibilgetzea

VII-Ibilgailuak Bide Publikotik Kentzea

ABANDONATURIKO IBILGAILUAK

ARAU-HAUSTEAK, MAILAKETA, JARRI BEHARREKO ZIGORRAK ETA ZIGORREN PROZEDURA

Arau-hausteen Kontzeptu orokorra

Arau-hausleak eta Zigorrak

Zigor Prozedura

Erantzunkizuna

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA

ERANSKINA (TRAFIKOKO ARAU-HAUSTEAK ETA DAGOZKIEN ISUNAK)



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eskuduntza

Ordenantza hau Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak Trafikoaren eta Zirkulazioaren arloan Udalerriei ematen dien eskumenak kontuan izanik ematen da.

2. artikulua. Arautuko dena

Ordenantza honek arautuko duena, herri barruko bideetako trafikoaren arloko erabilera, trafikoaren antolamendua, zaintza eta kontrola dira. Era berean, arau-hausteen salaketak eta zehapenak, ere arautuko ditu eta baita ibilgailuak ibilgetzeko, kaleetatik kentzeko, jasotzeko eta abandonatutako ibilgailuekin hartu behar diren zuhurtziazko neurriak ere.

3. artikulua. Lurraldeko aplikazio eremua.

Ordenantza honetako arauak Usurbilgo udalerriko hiri-bideetan aplikatuko dira.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

ARAU OROKORRAK

I- BIDE SEINALEAK

4. artikulua.

Udalari dagokio hiri barruko bideen seinaleztapena.
Norbanakoek ezin izango dute inondik inora bide seinalerik jarri.

Ordenantza honetan araututako bideak erabiltzen dituztenek zirkulazio arauak bete behar dituzte eta bide horietan dauden arauzko seinaleetan adierazitako mezura egokitu behar dute beren jokabidea.

5. artikulua.

Hiriguneetako sarreretan jarritako derrigorrezko trafiko seinaleak gune osoan betetzekoak dira, kale zatiren baterako berariaz jarritako seinaleztapena izan ezik.


Oinezkoen guneetako sarreretan eta zirkulazio murriztua edo geldialdi mugatuko gainerako guneetan jarritako seinaleek eragina izango dute perimetroaren barneko eremu guztian.

6. artikulua.

Seinaleak instalatzeko, erretiratzeko, lekualdatzeko edo aldatzeko udal baimena eskuratu behar da aurrez. Baimenak zehaztuko du ezarri beharreko seinaleen lekua, eredia eta neurriak.

Udalak berehala erretiratuko du behar bezala baimenduta ez dagoen seinaleztapena edo indarrean dagoen araudia betetzen ez duena, eta esandakoa egingo da arauzkoak ez diren seinaleekin nahiz seinalearen forma, kokapen edo diseinu okerra dutenekin ere.

Halaber, debekatu egiten da seinaleen edukia aldatzea, edo hauen gainean edo aldamenean nahasmena eragin, hauen ikusmena edo eragina murriztu, bideko erabiltzaileak itsutu edo hauen arreta desbideratu dezaketen plakak, txartelak, markesinak, iragarkiak edota bestelako gauzakiak jartzea.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

7. artikulua.

Udaltzainek egindako seinaleak aparkatzerakoan, zirkulatzerakoan edo pertsona, ibilgailu nahiz ondasunen garraioan, aurretikako seinale edo arauen gainetik egongo dira, kontrakorik frogatzen ez den bitartean.

Hau da seinaleen arteko lehentasun hurrenkera:

1. Trafikoa zaintzen duten agenteen seinale eta aginduak.
2. Behin-behineko seinaleak, bide publikoaren ohiko erabilera- araubidea aldatzen dutenak.
3. Semaforoak.
4. Zirkulazio seinale bertikalak.
5. Bide-marrak.

Seinaleek ematen dituzten aginduak beren artean kontraesanean badaude, aurreko paragrafoan ezarritako hurrenkeraren arabera lehentasuna duenari egin beharko zaio kasu eta, mota berekoak izanez gero, murriztaileenari.

8. artikulua.

Trafikoaren segurtasuna eta oinezkoen joan-etorriak bermatzeko beharrezkoa izanez gero, oinezkoen pasaguneak galtzada baino gorago eraiki ahal izango dira, beti ere irisgarritasun baldintzak betetzen badituzte.

Horretaz gain, indarrean dagoen araudiari egokitutako eta behar bezala seinaleztaturako goraguneak jarri ahal izango dira galtzadan, ibilgailuek abiadura murriztu behar izan dezaten.

II- OINEZKOAK

9. artikulua. Oinezkoen zirkulazioa

Oinezkoek espaloi eta beraientzat seinaleztaturiko lekuetan ibili behar dute. Galtzadak, seinaleztaturako pasaguneetatik zeharkatuko dituzte. Galtzada zeharkatzeko oinezkoen pasagunerik ez badago, arriskurik eta oztoporik sortu gabe zeharkatu dezaketela ziurtatu beharko dute.

Tel 943.361112 Faxe 943 368167 Korr.Elekt : udaltzaingoa@usurbil.net



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

10. artikulua. Oinezkoen eremuak

Udal agintaritzak oinezkoek lehentasuna duten eremuak ezarri ahal izango ditu. Haietan debekatuta egongo da, guztiz edo zati batean, ibilgailuak zirkulatu eta aparkatzea, eta organo eskudunak erabakiko du bertan nola zirkulatu behar den.

11. artikulua. Oinezkoentzako lehentasun eremuak

Oinezkoentzako lehentasun eremuak, ibilgailu guztien edo batzuen zirkulazioa eta aparkatzeko debeku partziala edo osoa duten Udal Administrazioak izendatutako kale edo hiri-bideak izango dira.

Oinezkoentzako lehentasun eremu bat izendatzen denean, udal agintaritzak egoiliar izaera hartuko duen eremua zehaztuko du. Eremu honetan bizi direnek egoiliar izaera izango dute eta oinezkoentzako lehentasunezko eremuan zirkulatzeko baimena izango dute.

Egoiliar baldintza beteko da gidaria edo ibilgailua aipatutako eremuan erroldatuta badago. Eremu horretan dauden garaje edo lokal bateko jabe edo maizter direnek ere egoiliar izaera izango dute.

Oinezkoen lehentasunezko eremuak, sarreran seinaleztatuko dira, ibilgailuen sarbideak galarazi edo kontrolatzeko jar daitezkeen elementu higigarrien kalterik gabe.

Halaber, udal agintaritzak ibilgailu jakin batzuk salbuetsi ahal izango ditu oinezkoentzako eremuetan ezarritako mugetatik, betiere arrazoiak azalduz (Udal zerbitzuak, egoiliarrek izanik mugikortasun arazoak dituzten erabiltzaileak edo berauen zaintzaileak, obra lizentzia izanik eremuan jardun behar duten langileak, egoiliarren etxe eta garajeetan tamainu handiko gauzen zamaketa lanak egiteko...).

Honako zerbitzu-ibilgailu hauek, zirkulazioari ezartzen zaizkion mugak bete beharrik ez dute izango: suhiltzaileen eta poliziaren ibilgailuak eta anbulantziak baldin eta jardunean badaude.

Belmonte kaleari dagokionez, oinezkoen lehentasunezko eremua Belmonte 1etik 21era bitartekoa izango da eta egoiliar izaera ondorengo eremuak izango du:

- Kalezar 1etik 19ra bitartea, 9 eta 10 zenbakiak izan ezik
- Belmonte Kalea, Zapatari Kalea eta Azpikalea
- Arrantzale Plaza eta Felix Aizpurua Plaza
- Arponari Kalea 4 eta 6 zenbakiak.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

III- BIZIKLETAK

12. artikulua.

Bizikletek ere indarrean dauden trafiko eta zirkulazio arauak bete behar dituzte. Bizikleta-bideetan eta oinezkoek lehentasuna duten eremuetan, seinaleztaturiko ibilbideetan ibiliko dira. Halakorik ez dagoen tokian, galtzadan ibiliko dira.

Txirrina eta indarrean dauden legeek agindutako argi eta elementu islatzaileak edukiko dituzte.

13. artikulua.

Galtzadatik doazenean, bizikletak eskuineko erreitik joango dira; errei horren erdiko aldea ere har dezakete. Bestalde, ezkerreko erreitik ere joan ahal izango dira, bidearen ezaugarriak direla-eta eskuineko erreitik ibili ezin direnean edo ezkerretara jo behar dutenean.

14. artikulua.

Parke publikoetan eta oinezkoen eremuetan, seinaleztaturiko bideetatik joango dira. Horrelakorik ez badago, ez dute oinezkoen abiadura gaindituko. Nolanahi ere, lehentasuna oinezkoek izango dute.

MOTORDUN IBILGAILUAK

I- ZIRKULAZIO ARAU OROKORRAK

15.artikulua. Bide Nagusiak

1. Trafikoari dagokionez bide nagusi izaera edukiko dute, ibilgailu kopurua, ibilbidea, egoera eta beste bideekiko lotura direla-eta, herri barruko trafikoa banatzeko ezinbestekoak diren bideak.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

2. Herri barruko zirkulazioaren zati handi bat jasan behar dutenez eta hauetan eginiko lege-hausteeak erabiltzaileei arrisku eta kalte handiagoak sortarazi diezaizkiekenez, Udaltzaingoa, hauek, arreta bereziz zainduko ditu eta ardura handiagoz jokatu du berauetan.

3. Aurreko ataletan aipaturikoari jarraiki, larritzat hartuko dira bide nagusietan geldialdi eta aparkamenduekin lotutako arau-haustekak.

4. Honako kale hauek hartu dira bide nagusitzat:

Kale Nagusia, San Inazio Kalea, Puntapax eta Zubiaurrenea kaleak

16.artikulua. Abiadura

Usurbilgo udalerriko herri barruko bideetan, ibilgailuek ezin izango dute hogeita hamar (30) km/h baino abiadura handiagoan ibili. Kasu batzuetan, pertsonen segurtasuna areagotzeko eta ingurumenaren kalitatea handitzeko are motelago ibili beharko dute, bidearen konfigurazioaren eta inguruabarren arabera, eta berariaz. seinaleztatuko da.

Espaloirik gabeko kaleetan, oinezkoek lehentasuna duten guneeetan eta oinezko ugari ibiltzen den tokietan, ibilgailu guztiak, gehienez, hogeita (20) km/h-ko abiaduran eta arretaz ibiliko dira. Gidariak lehentasuna eman behar diete oinezkoek eta ibilgailuak seinale nahiz marken bidez adierazitako tokietan baino ezin izango dira aparkatu.

17. artikulua. Ingurugiroari lotutako neurriak

Herri barruko bideetan ibiltzen diren ibilgailuen motorrek ezin izango dituzte kutsadura akustikoaren eta aire kutsaduraren alorrean indarrean dauden lege-arauetan ezarritako igorpen-mugak gainditu.

Zehatz esanda, bat-bateko azelerazioek, ihes-hodi trukatuak nahiz bestelako gorabehera ez ohikoek eragindako zaratarik ezin izango dute egin.

Debekaturik dago ke eta bestelako kontaminatzaileak botatzea arauz ezarritako mugen gainetik.

Seinale akustikoen okerreko edo gehiegizko erabilera debekaturik dago.

Herri bideetan ibilgailuen konponketa, garbiketa, koipeztatze, olio aldaketa eta antzeko lanak egitea debekatuta dago.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

II- ZIRKULAZIORAKO MUGAK

18. artikulua. Herri barruan, guztiz debekatuta dago honako pisu eta neurri hauek gainditzen dituzten ibilgailuekin zirkulatzea:

Pisuan, 3.500 kg-tik gorako ibilgailuak
Luzeran, 10 m-tik gorako ibilgailuak
Zabaleran, 2,5 m-tik gorako ibilgailuak
Altueran, 3,5 m-tik gorako ibilgailuak

18.1. Murrizte hauetatik kanpo daude baimenduriko linea erregularreko autobusak eta herri barruan bidaiariak utzi edo jasotzen dituzten autobusak.

18.2. Herriko sarreretan ezarriko dira gidariei arau murriztaile hauen berri emango dieten seinaleak.


18.3. Salbuespen gisa, bidearen ezaugarri, egoera, burutu beharreko lanak edota bestelako baldintza batzuk ematen direnean, artikulua honen 1.atalean adierazitako pisu eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailu batzuen zirkulazioa onartuko da.

18.4. Aipaturiko arrazoi horiek direla-eta, zirkulatzeko baimena ematen bada, ibilgailuaren gidariak, Udaltzaingoarekin batera, beharrezko neurriak hartuko ditu bide publikoaren gainerako erabiltzaileei inolako arrisku edo kalterik ez sortzeko.

Nolanahi ere, baimenaren titularrak izango da salbuespen gisa onarturiko zirkulazio honen ondorioz gerta daitezkeen kalte guztien erantzule bakarra.

18.5. Aurreko artikuluan aipaturiko baimenetan honako hauek zehaztu beharko dira:

- a) Baimenaren iraupena
- b) Ibilgailuak egin beharreko ibilbide zehatza.
- c) Hartu beharreko segurtasun-neurriak.
- d) Zirkulatzeko, maniobrak egiteko edota aparkatzeko ordutegia.
- e) Bide publikoaren segurtasuna bermatzeko beharrezko diren ohar guztiak.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

19. artikulua. ZIRKULAZIORAKO SALBUESPENEZKO NEURRIAK

Trafikoa eta zirkulazioa, larrialdiak, segurtasuna, ordena publikoa eta kirol, kultur nahiz bestelako ekintzak direla-eta, udal agintaritzak trafikoaren antolamendua aldi baterako aldatu ahal izango du eta, hala badagokio, beharrezko neurriak hartuko ditu pertsona eta ibilgailuen segurtasuna bermatzeko, garraio publikoari lehentasuna emateko eta zirkulazioa errazteko. Horretarako, komenigarriak diren eta erabiltzaileek nahitaez bete beharko dituzten seinaleak behin-behingo jarri edo kentzeko agindu ahal izango du, bai eta ibilgailu nahiz bide jakin batzuetarako murrizketak ezarri ere.

19.1 artikulua.

Salbuespenezko neurri bereziek eragindako eremua, ahal izanez gero, hogeita lau ordu lehenago seinaleztatuko da. Seinaleekin batera ohar bat jarriko da, neurriak zergatik hartzen diren, zenbat denborarako eta zein erabakiren ondorio izan diren azaltzeko.

19.2 artikulua.

Behar larririk egonez gero, ez da ezinbestekoa izango eremua seinaleztatzea. Salbuespenezko neurriek behar-beharrezkoak diren denboran baino ezingo dute iraun eta, epe luzeagoa behar izanez gero, udal agintaritzak emandako ebazpen batek berretsi beharko ditu.

19.3 artikulua Merkantzia arriskutsuak

Merkantzia arriskutsuak daramatzaten ibilgailuek debekatuta dute herri barrutik pasatzea. Beraz, herriaren inguruan dauden bideak erabili beharko dituzte. Salbuespen moduan, herri barruan sartu ahal izango dute, urtarrilaren 31ko 74/92 Errege Dekretuak aipatutakoaren arabera ondoko kasuetan:

- a) Merkantziak banatu edo eta zamalanak egiteko.
- b) Halabeharrez edo ezinbestekoa denean.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

III.- GELDITZEA ETA APARKATZEA

20. artikulua. GELDITZEA

Gelditzea, da: pertsonak hartu edo uzteko edota zamalanak egiteko, ibilgailua bi minutu baino gutxiagoko denboran ibilgetzea edo geratuta edukitzea.

Gelditzeetan, gidariak ezingo du ibilgailutik atera eta, salbuespen gisa, ateratzen bada, ibilgailua begi-bistan izan beharko du egoerak hala eskatzen duenean dagoen tokitik kendu ahal izateko.

20.1. Gelditzea debekatuta dago:

a) Modu horretan seinaleztatuta dagoen nahiz arauak hala ezartzen duten tokietan, kasu hauetan izan ezik: gaixorik edo ezindurik dauden bidaiariak hartu edo uzteko bada eta ibilgailua larrialdi edo segurtasun zerbitzuko nahiz baimendutakoa bada.

b) Arreta berezia eskatzen duten edo trafiko intentsitate handia duten bideetan.

c) Pertsonen edota ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen den lekuetan.

d) Galtzadako babesleku, isleta, erdibitzaile, eta trafikoa bideratzeko gainerako elementuetan.

e) Baimendutako pasabide lizentzia duten eraikinetara ibilgailuen sarrera-irteera oztopatuz.

f) Pertsonen eraikinetarako sarrera-irteera oztopatuz.

g) Espaloi, pasealeku, oinezkoen eremu eta lorategietan.

h) Autobus eta taxien geralekuetan

i) Ibiliaren aurkako noranzkoan

j) Trenbide pasaguneetan, bizikletentzako pasaguneetan eta oinezkoen pasaguneetan.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

k) Erabiltzaile jakin batzuk zirkulatu edo haiei zerbitzu emateko erreserbatutako errei edo bide-zatietan.

l) Herri barruko garraio publikoak aparkatzeko erabiltzen duen guneeetan.

m) Mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatutako seinaleztatutako guneeetan.

n) Gurpildun aulkiak, haurren gurditxoak eta bestelakoak pasatzeko ertza janda duten espaloi-zatietan

o) Zubi eta gaineko pasabideetan nahiz hauen azpian.

p) Ertz, bidegurutze nahiz bidebanatze batetik hiru metro baino gutxiagora.

r) Seinaleek adierazten dutena ikustea galerazten denean.

20.2. artikulua.

Ibilgailua geldirik badago, zirkulazioari traba eginez edota hau eragotziz, Udaltzaingoa bide publikotik mugitu arazi ahal izango du.

20.3. artikulua.

Udal agintaritzak hartutako erabaki edota ebazpenaren bidez, bidaiarien herri barruko garraio publiko eta taxi zerbitzurako geralekuak egokitu eta berariaz seinaleztatuko dira.

Egokitutako geraleku horiek ezingo dituzte erabili garraio publikoko zerbitzukoak ez diren ibilgailuek.

21. artikulua. APARKATZEA


Aparkatzea da: ibilgailuaren bi minutu baino gehiagoko geratzea, premiazko arrazoiren batek, zirkulazio beharrek edo arauzko agindu bat bete beharrak eraginikoa ez denean.

21.1- Ibilgailuak aparkatzeko, honako arauak bete beharko dira

21.1.1.-Ibilgailuak ilaran nahiz baterian aparkatu ahal izango dira; Ilaran, espaloiarekiko paraleloan. Baterian, espaloiarekiko perpendikular eta erdi-baterian, espaloiarekiko zeharka.

21.1.2.- Zoladuran markak dituzten aparkalekuetan, ibilgailuak, markatutako inguruaren barruan aparkatuko dira.

Tel 943.361112 Faxe 943 368167 Korr.Elekt : udaltzaingoa@usurbil.net



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

21.1.3.-Gidariak ibilgailua bere kabuz ez ibiltzeko moduan edota inork ez mugitzeko moduan ibilgetuko du. Gaizki ibilgetu izanaren ondorioz ibilgailua mugitu eta arau-hausteren bat emango balitz, gidariak erantzun beharko du, arau-haustea ibilgailuaren jabearen edota gidariaren borondatearen kontra egiten denean izan ezik.

21.1.4.-Debekatuta dago bide publikoetan ibilgailu motordunetatik bereizitako mota guztietako atoi eta erdi-atoiak aparkatzea; bai eta ibilgailu artikulatuak, kamioiak, autobusak, traktoreak, edo obra, zerbitzu eta nekazaritzarako ibilgailuak ere, eta oro har 3.500 kg-tik gorako pisu edo masa baimendua duen edozein ibilgailu edota zabalera nahiz luzerako neurrietan aparkalekuetarako gordetako perimetroa gainditzen duten ibilgailuak.

Ibilgailu horiek horretarako baimendutako lekuetan bakarrik aparkatu ahal izango dute, edo baimendutako ordutegian zamalanak egiteko.

21.1.5.- Autokarabanak bide publikoetan aparkatu ahal izango dira, 3.500 kg-tik beherako pisu edo masa baimendua badute, baina, bertan bizi, ostatu hartu edo akanpatzeko ezingo dira erabili.

21.1.6.- Debekatuta dago espaloietan eta oinezkoentzako kale-guneetan ziklomotorrak eta motorrak aparkatzea. Ibilgailu hauek propio seinaleztaturiko tokietan aparkatuko dira; toki nahikorik ez balego, ibilgailuak aparkatzeko seinaleztaturiko lekuetan aparkatuko dira, espaloia ertzarekiko perpendikular jarrita, zirkulazio erreian sartu gabe eta ahalik eta aparkatzeko tokirik txikiena hartzen dutela. Ezin izango dira bizikletak aparkatzeko barretan aparkatu.

21.1.7- Debekatuta dago ibiliaren aurkako noranzkoan aparkatzea.

21.1.8.-Ibilgailu motordunak ezin dira espaloia ertzarekiko gainean aparkatu, ez eta oinezkoen pasagune edota garraio publikorako geralekuetan ere.

21.1.9- Leku berean ezingo da jarraian 30 egun baino gehiagotan edo mugarik gabeko epealdian aparkatu, abandonu-egoera bat eman dela uste izateko moduan.

21.1.10-Aparkatzea debekatuta dago, geratzea debekatuta dagoen tokietan.

21.1.11.-Bidaiariak edota salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak horretarako propio seinaleztaturiko eremuetan baino ezin izango dira aparkatu, beti ere seinaleetan adierazitako baldintzak betez.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

21.2.-BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA MUGATZEA

21.2.1.- Udalak, ibilgailuek herriko leku jakin batzuetan aparkatzeko izango duten gehieneko denbora ezarri ahal izango du.

Horretarako, 3.500 kg arteko ibilgailuak bide publikoko zenbait eremutan aparkatzeko denbora mugak ezarriko dira.

Helburua herriko hainbat lekutan aparkatzeko eskaintza eta eskariaren artean oreka handiagoa lortzea da. Horretarako, Udalak bere kabuz edo zerbitzu hori emateko kontrata ditzakeen enpresen laguntzarekin jardungo du.

21.2.2.- Seinaleak

Araubide berezia duten gune hauek, Merkataritza guneko aparkaleku gisa erabiliko dira eta behar bezala seinaleztatuko dira, seinale bertikal eta horizontalak erabiliz.

21.2.3.- Ordainketa

Ibilgailua araupeko aparkaleku moduan behar bezala seinaleztatutako leku edo bide publikoan aparkatzeagatik ez da ordaindu beharrik izango.

21.2.4.- Ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara
Larunbatetan, 9:00etatik 13:00etara.
Jai egunetan ez da aplikagarria izango.

Baimendutako gehienezko denbora 60 minutukoa izango da.

Gune hauetako zenbait aparkalekuetan, merkataritzako eta zamalanetako erabilera elkarbanatuko denez, seinale bertikaletan adierazitako ordutegia izan beharko da kontutan.

Udal agintaritzak ahalmena izango du gehienezko ordutegi hori aldatzeko, zabaltzeko edo murrizteko bai eta ordenantza honetako egun, ordu eta aplikazio eremuak aldatzeko ere.

21.2.5.- Salbuespenak

Adierazitako bide publikoan edo zonetan aparkatzeko ordenantza honetatik salbuetsita daude ondorengo ibilgailuak:



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

- a) Larrialdietarako ibilgailuak, zerbitzuan daudenean: anbulantziak, suhiltzaileak, eta polizia.
- b) Mugikortasun urria duten erabiltzaileenak, inguruan erabilera horretarako aparkaleku librerik ez dagoenean.
- d) Hiletetako ibilgailuak, zerbitzuan daudenean.
- e) Taxiak, zerbitzuan daudenean.
- f) Barruan gidaria edo bidaiariren bat duen ibilgailua, aparkaldia bost minutu baino gutxiagokoa denean.

21.2.6.- Betebeharrak

Bide publiko eta aparkalekuetan aparkatzeko, ordenantza honetan adierazitako arau orokorrak betetzeaz gain, aipatutako gune eta ordutegietan, ordulari funtzioa duen aparkaleku txartela edo diskoa kanpotik erraz ikus daitekeen moduan ezarri beharko da ibilgailuan.

Ordulari funtzioa duen aparkaleku txartela edo diskoa eskuratzeko informazioa Usurbilgo Udaleko harrera zerbitzuan emango da.

21.2.7. Arau-haustek

21.2 artikuluekin lotutako arau-haustek ondokoak izango dira:

- a) Aipatutako gune eta ordutegietan, ordulari funtzioa duen aparkaleku txartelik edo diskorik ez erabiltzea, ez ikusteko moduan jartzea edo erabilera desegokia egitea.
- b) Aparkatuta egoteko gehieneko denbora gainditzea.

Arau-hauste hauek arinak izango dira. Legean jasotako epeetan ordainduz gero %50eko beherapena izango dute. eta isuna jarri eta lehen bost egunetan %75 eko hobaria izango dute.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

Arau-haustek honakoekin bat etorri zigortuko dira:

6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aplikatzeko eta garatzeko Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onartzen duena

2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Gidarien Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko zehapen-prozeduraren Erregelamendua onartzen duena.

920/2017 Errege Dekretua, urriaren 23koa, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa arautzen duena.

21.2.8.-Merkataritzarako Guneen kokapena

Kale Nagusian (8 atzealdea, 10)

Askatasuna Plazan

Zubiaurrenea kalean (2, 5 atzealdea, 10, 10 atzealdea)

Puntapax kalean (5, 7)

Errekaxiki Kalea 3

Kontseju Zarra Kalea 9

Santuenea 38



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

IV- ZAMALANAK

22. artikulua.

Bide publikoan zamalanak egitea honakoa da: salgai bat finka batetik aparkatuta dagoen ibilgailu batera eramatea, edo alderantziz, edo eta ibilgailu batetik bestera eramatea; beti ere ibilgailua horretarako baimenduta dagoenean.

Honakoak dira zamalanak egiteko baimena dutela kontsideratzen diren ibilgailuak: turismoak ez diren eta salgaiak garraiatzeko baimena duten errotulatutako ibilgailuak, beti ere 3500 Kg baino gutxiagoko karga-erabilgarriko edukiera dutenak.

Udalak, zamalanetako eremu eta ordutegiak seinaleztatuko ditu.

Eremu hauetatik kanpo, zamalanak egin ahal izango dira, soilik, horretarako erreserbatutako eremurik ez dagoenean edo eta, biltegirako distantziak nekea edo arriskua sor dezakeenean.

22.1.-Salgaiak kargatu eta deskargatzeko modua:

a) Ahal bada, merkataritzako nahiz industriako lokaletan egingo da, beti ere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira eta sarbideek horretarako aukera ematen badute.


b) Helburu horrekin erreserbatutako guneean, seinaleetan adierazitako ordutegia errespetatuko da.

22.2.-Zamalanetan diharduten ibilgailuek ezingo dituzte espaloiak, eta pasealekuak okupatu ez eta, gelditzea debekatuta dagoen gainerako gunek ere.

22.3.-Kargatu eta deskargatu beharreko salgaiak eta bestelakoak zuzenean eramango dira finka nahiz lokaletik ibilgailura, edo eta ibilgailutik finka nahiz lokalera. Ez dira inoiz bide publikoan utziko.

22.4.-Zamalanak arretaz egin beharko dira, ahal den neurrian zaratak ekidinez eta erabilitako tokia garbi utziz.

22.5.-Zamalanak ibilgailuak espaloitik hurbilen duen aldetik egingo dira, beharrezko bitarteko guztiak baliatuta ahalik eta azkarren bukatzeko, eta beste ibilgailu nahiz oinezkoen trazarik egin gabe.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

V- ZIRKULAZIOA ANTOLATU ETA KONTROLATZEKO NEURRIAK.

23. artikulua.- Udalak, zirkulazioa antolatzeko bidezkoztat jo ditzakeen neurri guztiak har ditzake, ibilgailu guztien edo ibilgailu jakin batzuen zirkulazio baldintzak edo oinezkoenak behin betiko edo denbora jakin baterako aldatu, murriztu edo debekatuz, zamalanak, merkantzia edo pertsonen garraioa arautu edo berrantolatuz.

Udaltzaingoak, herriko guneren bateko zirkulazioaren antolamendua aldi baterako aldatu ahal izango du, edo/eta lekuren batean pertsona eta ibilgailuei sartzeko debekua ezarri ahal izango die. Horretarako, beharrezko diren seinaleak aldibaterako jarri edo kenduko ditu eta behar diren neurri guztiak hartuko zirkulazioaren segurtasun eta arintasuna bermatzeko

24. artikulua.-Udalak, leku batzuetan denbora jakin batez aparkatzea debekatu dezake, baimendutako ekitaldiak izango direlako edo eta, konpondu, seinalizatu, garbitu edo mantenu lanak burutu behar direlako. Horretarako, toki edo leku horiek hesiz inguratu, eta aparkatzeko debekua hasi baino 24 ordu aurretik han aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duen seinalea jarriko da, noiz eta zergatik debekatzen den azalduz.

VI- IBILGAILUAK IBILGETZEA

25.artikulua

Ibilgailuak herri-bidean ibilgetzea bidezkoa izango da ondoko kasuetan:

25.1.- Ibilgailua erabiltzean, arrisku larrian jartzen badira zirkulazioa, pertsonak edo ondasunak.

25.2.- Ibilgailuak zirkulatzeko administrazio-baimenik ez duenean.

25.3.- Ibilgailuak bide-segurtasunarentzat bereziki arriskutsuak izan daitezkeen akatsak dituztenean.

25.4.- Gidariak odolean legeak onartutakoa baino alkohol-maila handiagoa duenean, edo bestelako substantzien eraginpean dagoenean.

25.5.- Gidariak odolean daraman alkohol-maila edo/eta substantzia5 estupefaziante edo antzeakoak neurtzeko proba egiteari uko egiten dionean edo/eta hauek hartu izanaren sintomak nabaritzen zaizkionean.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

25.6.- Ziklomotor edo motozikletaren gidariak babes-kasko homologaturik gabe zirkulatzen duenean.

25.7.- Ibilgailuak, nahitaezko asegururik ez duenean.

25.8.- Pertsonak garraiatzerakoan, baimendutako plazen kopurua, gidaria kenduta, %50ean gainditzen denean.

25.9.- Ibilgailu-mota kontuan izanda, baimendutako gas, ke eta zarata mailak gainditzen direnean.

25.10.- Kontrol tresnak manipulatu egin direla adierazten duten arrazoizko zantzuak daudenean.

25.11.- Arau-hausteren bat salatutakoan, salatuak ohiko bizilekua espainiar estatuan duela egiaztatzen ez duenean, eta isunaren behin-behineko zenbatekoa ordaintzeari edo bermea jartzeari uko egiten dionean.

25.12.- Ibilgetzea bertan behera utziko da egoera hori sorrarazi duen arrazoia desagertu bezain laster, edo gidariaren orde, horretarako gaituta dagoen eta Agintaritzaren agenteei behar adinako bermea ematen dien beste gidari bat dagoenean, baldin eta haren parte-hartzea interesdunak berak eskatu badu.

VII- IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA

26. artikulua

Udaltzaingoak ibilgailua bidetik kendu eta ibilgailuen udal-gordetegira eraman ahal izango du, honako kasu hauetan:

26.1.- Ibilgailuen zirkulazioari, bide publikoko beste erabiltzaileei edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduari arazo larri bat eragiteko arriskua dagoenean, edo bide publikoan abandonatuta egotearen zantzuak badaude.

26.2.- Istripu bat dela medio, martxan jarraitzeko moduan ez dagoenean eta, horren ondorioz, behartutakoak bere kabuz mugitu ezin badu.

26.3.- Ibilgailuaren beraren akatsengatik ibilgetu zenetik 48 ordu igaro ondoren, gidariak edo jabeak akats horiek konpondu ez baditu.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

26.4.- Ibilgailua Ordenantza honen 28.11. artikuluan adierazitako edozein arrazoigatik ibilgetuta egonda, arau-hausleak behin eta berriz uko egiten badio isunaren zenbatekoa ordaintzeari, edo ordaintzeko bermea jartzeari.

26.5.- Alkoholemia-probak egin ondoren emaitzak positiboak izan direnean, baldin eta horretarako gai den pertsona bat ibilgailua gidatzeaz arduratzen ez bada.

26.6.- Ibilgailua bertan behera utzi dutenaren edota lapurtutakoa izan denaren arrazoizko ustea dagoenean, edo hori pentsaraztera daramaten kalteak dituenean.

26.7.- Bide publikoko leku berean 30 egun baino gehiago aparkatuta daramatzanean, eta bere kabuz mugitzea ezinezkoa egiten duten kalteak dituenean edo matrikula-plakarik ez duenean.


26.8.- Horretarako eskumena duen Agintaritzak, ibilgailua bahitzeko eta udal-biltegian uzteko agindua eman duenean.

26.9.- Horretarako eskumena duen Agintaritzak, ibilgailua zigilatzeke agindua eman eta udal-biltegian uzteke agindua eman duenean.

27. artikulua- Ibilgailua kentzearen arrazoiak

Adierazpen gisa, ibilgailu bat Ordenantza honen 26.1 artikuluan zehaztutako egoeretan dagoela eta hura handik kentzea justifikatuta dagoela iritziko da, honako kasu hauetan:

1. Gelditza debekatuta dagoen leku batean aparkatuta dagoenean.
2. Bigarren ilaran eta gidaririk gabe utzi denean.
3. Beste gidariei maniobra arriskutsuak egitera behartzen dituen lekuren batean dagoenean.
4. Seinaleztatutako oinezkoen pasabide batean, etxadien muturretan oinezkoak igarotzeko prestatutako leku batean edo espaloian mugikortasun urria dutenentzako jarritako beheragune batean aparkatuta dagoenean.
5. Garaje sarbideren bat oso-osorik edo zati bat hartzen duela dagoenean.
6. Ibi bat guztiz edo partzialki okupatzen duenean, hura erabiltzeko baimendutako ordutegiaren barruan.
7. Zamalanetarako gune batean geldituta edo aparkatuta dagoenean hura erabiltzeko orduetan, bidaiariak edo salgaiak kargatzen edo deskargatzen aritu gabe.
8. Garraio publikorako geraleku seinalatzatu eta mugatu batean aparkatuta dagoenean.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

9. Larrialdi edo segurtasun-zerbitzuentzat berariaz gordetako lekuetan aparkatuta dagoenean.

10. Ikuskizun publikoetara zuzendutako lokalen larrialdi-irteeren aurrean aparkatuta dagoenean, ikuskizun horiek egiten diren orduetan.

11. Mugikortasun urria dutenentzat gordetako leku batean aparkatuta dagoenean.

12. Guztiz edo partzialki aparkatuta dagoenean espaloi, nasa, babesleku, pasealeku, arreta-gune edo zoruko marra-gune baten gainean, berariaz baimendutako kasuetan izan ezik.

13. Bide publikoaren gainerako erabiltzaileei trafiko-seinaleak ikusten uzten ez dienean.

14- Baimena duen erabilera publikoko aparkaleku edo gordelekuren baterako sarbidea, zirkulazioa edo aparkatzea eragozten edo zailtzen duela dagoenean.

15. Biratzea eragozten duenean, edo hori egiteko maniobra arriskutsuak egitera behartzen duenean.

16. Bide publiko bateko zirkulazioa ikustea eragozten dienean beste bide batetik sartzen diren gidariei.

17. Eraikin batera sartzea guztiz edo partzialki eragozten duenean.

18. Galtzadaren erdian aparkatuta dagoenean.

19. Oinezkoentzako gune batean aparkatuta dagoenean eta gune horrentzat ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenean, berariaz baimendutako kasuetan izan ezik.

20. Hondakin solidoen bilketa zerbitzua eragozten duenean.

21. Aurreko kasu guztietan bezala, zirkulazioarentzat edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduarentzat arriskua edo eragozpen larria sortzen duen guztietan.

22. Ibilgailua legez ibilgetzeari ekinda, horretarako leku egokirik ez dagoenean ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatu gabe.

28. artikulua Beste arrazoi batzuk:

Udaltzaingoak, halaber, arau-hausterik egon ez arren ibilgailuak bide publikotik kendu ahal izango ditu, honako kasu hauetan:

1. Aparkatuta dauden lekua behar bezala baimendutako ekitaldi publiko baterako erabili behar denean.

2. Bide publikoa garbitu, konpondu, seinaleztu behar denean edota bertan mantentze lanak egin behar direnean.

3. Larrialdietan.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

Artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan adierazitako inguruabarrak ahal den aurrerapen handienaz ohartarazi beharko dira, eta ahal bada, ibilgailuak aparkatuta dauden lekutik hurbilen dagoen baimendutako lekura eramango dira, gidariei non dauden adierazita. Lekualdaketa horiek ez diote inolako gasturik suposatuko ibilgailuaren titularrari, ibilgailua eraman den lekua edozein dela ere.

29. artikulua

Ibilgailuak eramateko udal-biltegirik izan ezean, aurreko artikuluetan aipatutako egoeratan dauden ibilgailuak, dauden lekutik garabia erabiliz kendu eta ibilgetuta eduki ahal izango dira aparkalekuren batean.

30. artikulua. Ibilgailuak erretiratzea gerarazi

Ibilgailua erretiratze lanetan ari direla gidaria azaldu eta ibilgailua behar den lekuan aparkatuko balu, erretiratze lana bertan behera geratuko litzateke. Tasei dagokienez, ordenantzak kasu horretan dioena egingo da.

31. artikulua. Gastuen ordainketa

1.- Lapurretetan edo ibilgailua jabearen borondatearen kontra erabili den beste kasu batzuetan izan ezik, titularraren kargu joango dira Ordenantza honen 29 eta ondorengo artikuluek aipagai duten erretiratzearen araberako gastuak, eta aurrez ordaindu edo hauen ordainketa bermatu beharko du ibilgailua berreskuratzeko.

2.- Era berean jokatuko da gidariak alkohol proba egiteari uko egiten dion kasuetan eta indarrean dagoen legediak hala xedatzen duen beste kasu guztietan.

3.- Erretiraturiko ibilgailua delitu batean erabili bada, eta horren ondorioz epaitegiaren esku geratu bada, bide horretatik egingo da gastuen erreklamazioa.

4.- Titularrak edo horretarako baimendua dagoenak soilik jaso ahal izango du udal biltegirira eramandako ibilgailua.

5.- Bide publikoan dagoen ibilgailua erretiratzearekin lotutako gastuak ordaintzeko betebeharra, ibilgailua lotzen hasi orduko sortuko da.

Garabia edo xede horretarako erabiliko den ibilgailua, erretiratu edo lotu beharreko ibilgailuaren ondoan egoteak ordaintzeko betebeharra sortuko du, erretiratze lanekin hasita egon ez arren.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

6.- Bide publikoan dauden ibilgailuak erretiratzeagatik edo lotzeagatik ordaindu beharreko tasak Usurbilgo Udaleko Ordenantza Fiskalen arabera zehaztuko dira.

7.- Bide publikotik ibilgailu bat bere jabeari jakinarazi gabe erretiratu bada eta 48 ordu igaro ondoren inork erreklamatu ez badu , erregistroan ibilgailu horren titular gisa agertzen den pertsonari emango zaio erretiratzearen berri.

ABANDONATURIKO IBILGAILUAK

32. artikulua

Ibilgailu bat abandonu egoeran dagoela esan ahal izango da, honako zirkunstantzia hauetako batean badago:

1. Bi hilabetetik gorako epean bide publikoko leku berean aparkatuta egon bada. Kasu honetan, nahiz eta abandonu egoera nabarmena izan, matrikula plakak agerian baditu edo bere jabea identifikatzen duen beste edozein seinale baldin badu, erretiratzeko 15 eguneko epea emango zaio. Hala egingo ez balu, ibilgailua hiri hondakin solido izendatu eta Hondakinei buruzko ordenantzaren arabera tratamendua emango zaio.

2. Leku berean aparkatuta hilabete igaro ondoren, dituen akatsengatik mugitzeko aukerarik ez duenean edo matrikula plakarik ez duenean ibilgailua hiri hondakin solido gisa izendatu eta Hondakinei buruzko ordenantzaren arabera tratamendua emango zaio.

33. artikulua

Abandonu egoeran dauden ibilgailuekin jarraituko den prozedura ondokoa izango da, betiere zirkulazioan edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduan halako arrisku edo enbarazu larririk eragiten ez badu:

1. Egoeraren berri emango zaio Ibilgailuen Erregistroan haren titular gisa agertzen den pertsonari edo haren legezko jabeari, eta hamar eguneko epea emango zaio ibilgailua erretiratu dezan.

2. Hamar egunak igaro eta ibilgailuak abandonu egoeran jarraitzen badu, udal biltegiara erretiratuko da eta hasiera emango zaio santziorako espedienteari.

3. Titularren kargura joango dira abandonaturiko ibilgailuak erretiratzeagatik ordaindu beharreko gastuak.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

34. artikulua.

Udal biltegira, trafiko arauak haustearen, trafiko istripuen, epaitegiaren aurreko jardunbide amaitu baten edo behar bezala arrazoituriko beste aktuazio batzuen ondorioz erretiratu diren ibilgailuak abandonaturiko ibilgailutzat hartuko dira biltegira sartu eta hilabetera, edo haiei buruzko prozesua bukatu ondoan, titularrek edo jabeek ez badituzte erretiratu, eta hurrengo artikuluan aurreikusiriko moduan jokatu da ondoren.

ARAU-HAUSTEAK, MAILAKETA, JARRI BEHARREKO ZIGORRAK ETA ZIGORREN PROZEDURA

ARAU-HAUSTEEN KONTZEPTU OROKORRA

Administrazio-hutsegite izaera izango dute, ordenantza honek arau-haustetzat jotzen dituen egintza edo ez-egite guztiek eta haren baitan ezarritako portaera-arauen aurkako jarrerak, baina urriaren 30eko 6/2015 L.E.Dak eta horren arau-xedapenek ondorio horientzako zuzenean ezartzearen kalterik gabe, lege penaletan sailkatutako delitu edo hutsegiteak diren kasuetan salbu, kasu horietan Administrazioak erruaren zatia horretarako eskuduntza duen eskumenari pasatuko baitio eta zigor-prozedura gelditu egingo du, Agintaritza Judizialak epai finkoa ematen ez duen arte.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

40.1. Ordenantza honekiko egindako arau-hausteak, arin, larri eta oso larri bezala sailkatuko dira. Arau-hauste arinak 100 € arteko isunarekin zigortuko dira, larriak 200 € arteko isunarekin eta oso larriak 500 € arteko isunarekin, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik.

40.2. Ordenantza honi erantsita doa arau-hausteen eta haien zenbatekoen Eranskina.

40.3. Abiadura gainditzeagatik egindako arau-hausteak, indarrean den legedian zehaztuta dagoen zenbatekoarekin zigortuko dira.

40.4. Alkoholdun edarien, sustantzia sorgogarrrien edo antzekoen eraginpean gidatzeagatik egindako arau-hausteak eta sustantzia horiek antzemateko edota alkohol-neurria jakiteko probei ezetza esatea, arau-hausteen taulak dakarren eranskinean jasotako zenbatekoarekin zigortuko dira.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

40.5. Ibilgailuaren titularrak edo errentariak, arau-haustearen arduradun gidaria identifikatzeko betebeharra du.

ZIGOR-PROZEDURA

41. artikulua.

Motordun ibilgailuen trafiko eta zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko zigor-prozedura, indarrean dagoen legedian ezarrita dagoena izango da:

320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko zehapen-prozeduraren Erregelamendua onartzen duena.

42. artikulua. Isunaren ordainketa.Prozedura laburtua.


42.1. Isun arinek, isuna ezartzen den egunetik 5 egun naturaletan ordainduz gero, % 75eko diru murrizketa izango dute. Aipatutako isun ordainketaren murrizketak ondokoa suposatzen du:

1. Ezingo da alegaziorik aurkeztu. Hala eginez gero, ez aurkeztutzat hartuko dira.
2. Isuna ordaintzen den egunean, prozedura amaitutzat emango da erresoluzioaren beharrik gabe.
3. Administrazio bidearen amaiera, administrazioarekiko auzi bidean soilik erreklamatzeko aukera izanik.

Isun-zehapenak, salaketaren jakinarazpena izan denetik 20 eguneko epean ordaindu daitezke % 50eko murrizketarekin.

Aipatutako murrizketarekin aurrez ordaintzeak honako ondorio hauek dakartza:

- Alegazioak aurkezteari uko egitea. Eginez gero, ez aurkeztutzat hartuko dira.
- Ordainketa egiten den egunean, prozedura amaitu egingo da, ebazpen xedatua eman beharrik gabe.
- Administrazio bidea agortzeari dagokionez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bakarrik jar daiteke errekurtsioa.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

—Administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko epea ordainketa egin eta hurrengo egunean hasiko da.

— Zehapenaren irmotasuna administrazio-bidean, ordainketa egiten den unetik, eta ondorio guztiak hurrengo egunetik aurrera sortuz.

— Zigorra, Arau-hausle eta Gidarien erregistroan ez da aurrekari bezala kontuan hartuko, beti ere, puntuak galtzea ez dakarten arau-hauste larriak badira.

43. artikulua. Prozedura eratzeko eta zigorrak jartzeko eskuduntza duten organoak.

Ordenantza honetako araukiko egindako arau-hausteengatik irekitako espedienteen izapidetzea, Udaltzaingoaren administrazio-atalak egingo du, izapidegilea Udaltzainburua izanik.

Prozedura amaitzean, dagokion ebazpena emango du organo zigor-emaileak, eta organo hori Alkate-Udalburua izango da.

44. artikulua . Agintaritzaren agenteen betebeharrak.

Udaltzainak, Agintaritzaren agenteak dira eta Ordenantza honekiko eta indarrean diren legeekiko egindako arau-haustekak salatu egin beharko dituzte.

ERANTZUNKIZUNA

45.artikulua

1. Ordenantza honetan eta trafiko-arauetan ezarritakoa urratuz gero, arau-haustea eragin duen gertaeraren erantzule den pertsonari egotziko zaio, zuzenean, arau-hausteagatik erantzukizuna.

2. Ibilgailuaren titularrak, hori egiteko eskatzen bazaio, arau-haustea egin duen gidaria identifikatzeko betebeharra du, eta dagokion prozedura-izapidean betebeharrak hori urratzen baldin badu bidezko arrazoirik eman gabe, diruzko zigorra ezarriko zaio: isuna eragin duen arauhaustearentzat ezarrita dagoen zenbatekoaren bi halako, arau-hauste arina bada, eta hiru halako, arau-hauste larria edo oso larria bada.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

3. Erakunde eta zerbitzu publikoetako gidariak Ordenantza honetan xedatutakoa une oro betetzeaz arduratuko dira, eta beraiena izango da egin ditzaketen arau-hausteen ardura. Erakunde edo zerbitzu publiko bateko ibilgailu bat salatzen bada, ibilgailuari dagokion Saileko Arduradunari jakinaraziko zaio gertaera, dagokion zehapen-espeditentea izapidetzeari kalterik egin gabe.

46. artikulua. Premiamendu-bidetik ordainaraztea

Trafikoaren arloko arau-hausteengatik isunak premiamendu-bidetik ordainarazteko, derrigorrezko diru-bilketari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.

47. artikulua. Isunaren preskripzioa.

1.- Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteen preskripzio-epea hiru hilabetekoa izango da arau-hauste arinentzat, eta sei hilabetekoa arau-hauste larri eta oso larrientzat. Preskripzioa, bestalde, eten egingo da, Administrazioaren jarduketa edozein dela ere, baldin eta salatuak jarduketaren berri izaten bada, edo salatuaren identitatea edo helbidea jakiteko egiten bada, eta jarduketaren sorrerako bulegotik kanpora zabalduz egiten bada. Eten egingo da preskripzioa, halaber, baldin eta indarreko legerian ezarritakoaren arabera egiten bada jakinarazpena.

2.- Zehapen-zigorrek lau urtera preskribatuko dute, zigorra administrazio-bidean irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

3.- Espedientearen izapide-aldietan eskumenak dituzten organoek ofizioz aplikatuko dute preskripzioa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, 2001eko "Hiri trafikoko, motordun ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasuna arautzen duen ordenantza" indargabetuta geratuko da bai eta Ordenantza honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik indarrean jarriko da.



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

ERANSKINA
TRAFIKOKO ARAU-HAUSTEAK ETA DAGOZKIEN ISUNAK

6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa
TRAFIKOARI, IBILGAILU MOTORDUNEN ZIRKULAZIOARI ETA BIDE-SEGURTASUNARI
BURUZKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUENA

ZIRKULATZEKO ARAUAK

ART.	KAL.	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	P
10.2	L	Ibilgailu bat gidatzea, eta bere matrikula-plakek zer edo zer edukitzea edo identifikazioa ezinezkoa edo zaila izatea	200€	
10.3	OL	Titularrak edo errentariak ez dauka ibilgailua legez edo erregelamenduz eduki behar duen bezala, eta bide-segurtasuna bermatzeko beharrezko baldintza teknikoak larriki urratzen ditu (ibilgailuaren akatsak adierazi)	500€	
10.3	L	Titularrak edo errentariak ez dauka ibilgailua legez edo erregelamenduz eduki behar duen bezala, eta bide-segurtasuna bermatzeko beharrezko baldintza teknikoak urratzen ditu (ibilgailuaren akatsak adierazi)	200€	
11.1.a)	OL	Ibilgailuaren titularrak edo errentariak, arau-haustea egin duen gidaria ez identifikatzea, hori egiteko eskatu zaionean *Hasierako arau-haustearen kalifikazioaren arabera	500€	
11.1.b)	L	Titularrak, errentariak edo ohiko gidariak ez dio eragotzi bere ibilgailua gidatzea, inoiz gida-baimena edo lizentzia lortu ez duen pertsonari	200€	



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa
ZIRKULAZIOKO ERREGELAMENDU OROKORRA ONARTZEN DUENA

ARAU OROKORRAK

ART.	KAL.	ARAU-HAUSTEA	KOPURUA	P
GIDARIAK				
3.1	A	Norberaren edo besteen kalteak saihesteko beharrezko arretarik gabe gidatzea	80€	
3.1	L	Axolagabekeriaz eta behar den arreta jarri gabe gidatzea	200€	
3.1	OL	Ausarkeriaz gidatzea, arrisku larria sortuz	500€	6
ZIRKULAZIOAREN SEGURTASUNARI ERAGITEN DIOTEN JARDUERAK				
4.2	A	Bideetara gauzak edo gaiak bota, bertan utzi edo lagatzea, baldin eta, horrela, eroso zirkulatu, gelditu edo aparkatzea oztopatu edo arriskutsu bihurtzen bada, edo bideetan zirkulatu, gelditu edo aparkatzeko baldintza egokiak aldarazten badira.	80€	
4.2	A	Bide-inguruetara gauzak edo gaiak bota, bertan utzi edo lagatzea, baldin eta zirkulatu, gelditu edo aparkatzeko baldintza egokiak aldarazten badira.	80€	
OZTOPOAK ETA ARRISKUAK SEINALEZ OHARTARAZTEA				
5.1	A	Oztopoak eta arriskuak bidetik ez kentzea.	80€	
5.3	A	Oztopoak eta arriskuak behar den moduan ez seinaleztatzea	80€	
5.7	L	Agintaritzaren agenteak esandakoan ez beste leku batean gelditzea.	200€	
5.7	L	Agintaritzaren agenteak esandakoan ez beste leku batean aparkatzea.	200€	
SUTEEI AURREA HARTZEKO NEURRIAK				
6	L	Sua pitz dezakeen, eta, oro har, bide-segurtasuna (zirkulazio-istripua) arriskuan jar dezakeen edozein gauza bideetara edo bide-inguruetara botatzea.	200€	4



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

PERTURBAZIOAK ETA KUTSATZAILEAK IGORTZEA

7.2	L	Hodia libre dela edo zarata-isilgailu osagabe, ezegoki edo narriatu batekin zirkulatzea.	200€	
7.2	L	Motorretik jaurtitako gasak hodi burrunbarietatik pasaraziz zirkulatzea.	200€	
7.2	L	Barne-errekuntzako motordun ibilgailuetan zirkulatzea, baldin eta beste ibilgailu batzuetako gidariei ikuspena oztopatzen dien kea edo, nolana ere, kaltegarria den kea botatzen badute.	200€	
7.2	L	Barne-errekuntzako ibilgailu motordun batekin kaltegarria den kea botaz edo beste ibilgailu batzuetako gidariei ikuspena oztopatuz zirkulatzea.	200€	
7.3	L	Motordun ibilgailuei buruzko arauetan jasotako mugaz gaindiko kutsagarriak jaurtitzea.	200€	

PERTSONEN GARRAIOA

9.1	A	Baimendutako plaza-kopurua baino pertsona gehiago garraiatzea	80€	
9.1	A	Zerbitzu publikoko ibilgailuek edo autobusek baimenduta dituzten plaza kopurua adierazten duen plakarik ez eramatea	80€	
9.1	A	Ibilgailuaren BGMaz gaindiko pertsonak edo ekipaiak garraiatzea.	80€	
9.3	L	Ibilgailuak baimenduta dituen plazak baino %50 gehiago garraiatzea, gidaria zenbatu gabe.	200€	
10.1	A	Ibilgailuetan pertsonak beraientzat egokituta ez dauden lekuetan garraiatzea	80€	
10.2	A	Salgaiak edo gauzak garraiatzeko ibilgailuetan, zama eramateko tokian, pertsonak garraiatzea	80€	
11.1	A	Gidariak ibilgailua galtzadaren eskuineko ertzetik ahalik eta gertuen ez gelditzea	80€	

Bizikletei, ziklomotorrei eta motozikletei buruzko arauak

Tel 943.361112 Faxe 943 368167 Korr.Elekt : udaltzaingoa@usurbil.net



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

12.1	A	Lagun bakarrarentzat egindako bizikletan pertsona bat baino gehiago ibiltzea	80€	
12.2	A	Motozikletaren edo ziklomotorraren zirkulazio-baimenean baimendutako bidaiari kopurua baino gehiago zirkulatzea	80€	
12.2	A	Bidaiaria, motozikleta edo ziklomotorreko gidariaren eta esku-lekuaren artean eramatea	80€	
12.3	L	Gidari adinez nagusi eta baimendunak 7 urtetik gorako eta 12 urtetik beherako bidaiaria eramatea motozikletan edo ziklomotorrean, kasko homologatua jantzi gabe.	200€	
12.3	L	Gidari adinez nagusi eta baimendunak 7 urtetik gorako eta 12 urtetik beherako bidaiaria motozikletan edo ziklomotorrean eramatea, hankalatraban jarri gabe, eta oinak hankaleketan ipini gabe.	200€	
12.3	L	Gidari adinez nagusi eta baimendunak 7 urtetik gorako eta 12 urtetik beherako bidaiaria eramatea, gidariaren atzeko eserlekua erabili gabe	200€	
12.4	A	Motozikleta, hiru gurpildun ibilgailu, ziklomotor edo bizikleta batek, bere masa hustuaren %50etik gorako atoaia edo erdi-atoia eramatea.	80€	
12.4.1	A	Motozikleta, hiru gurpildun ibilgailu, ziklomotor, edo bizikleta batek, atoaia edo erdiatoia eramatea, gauzez edo ikuspena gutxitzen duten baldintzetan.	80€	
12.4.2	A	Motozikleta, hiru gurpildun ibilgailu, ziklomotor, edo bizikleta batek, daraman atoian pertsonak eramatea.	80€	
Zama kokatzeko modua				
14.1	L	Ibilgailuaren zama desorekatuta edo ezegonkor eramatea, eragozpena edo arriskua sortuz	200€	
14.2	L	Hautsa harrotu dezaketen gaiak eta eror daitezkeen gaiak erabat eta behar bezala estali gabe eramatea	200€	
14.3	L	Gai gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsuak garraiatzea, baita egokitzen edo zamaketa bereziak behar dituztenak ere, haietarako dauden arauak bete gabe.	200€	
Zamaren neurriak				
15.2	A	Zama egokitu eta atondu gabe ibilgailutik kanpora irtetea	80€	
16.A	A	Zamalanetarako egokitutako lekuak ez errespetatzea	80€	
16.B	A	Zamalanak espaloitik hurbilen dagoen aldetik ez egitea	80€	
16.C	A	Zamalanak egitean salgaiak galtzadan, bazterbidean edo oinezkoentzako gunean uztea.	80€	



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

GIDARIEN BESTE BETEBEHAR BATZUK

18.1	A	Ibilgailua gidatzean, mugimendu-askatasuna, ikusteko beharrezko eremua edo arretarik ez izatea.	80€	
18.1	A	Bidaiariak egoki eserita joan gabe eramatea, edo garraiatzen diren gauzak edo animaliak gidariari traba egiteko moduan eramatea.	80€	
18.1	L	Internet-i loturiko pantailak, telebista-monitoreak edo bideo edo DVD aparatuak erabiltzea gidatu bitartean.	200€	3
18.2	L	Soinu-aparatuei loturiko kaskoak edo aurikularrak jantzita gidatzea.	200€	3
18.2	L	Sakelako telefonoak edo komunikaziorako beste baliabideren bat erabiltzea gidatu bitartean.	200€	3
18.3	L	Trafikoko agenteen zaintza sahiesteko seinaleak egitea.	80€	

ALKOHOL MAILAK

20.1	OL	Odolean litroko 0,5 gramotik gora alkohol edo botatako arnasan 0,25 miligramotik gora litroko edukita ibilgailu bat gidatzea.	500€	*
20.1	OL	Odolean litroko 0,5 gramotik gora alkohol edo botatako arnasan 0,25 miligramotik gora litroko edukita txirrindu bat gidatzea.	500€	*
20.1	OL	Odolean litroko 0,3 edo jaurtitako arnasan litroko 0,15 miligramo baino alkohol gehiago duela gidatzea. - Salgaiak garraiatzeko ibilgailua, 3.500 kg.-tik gorako BGMkoa. - Bidaiariak garraiatzeko ibilgailua, 9 plazatik gorakoa. - Zerbitzu publikoko ibilgailua. - Eskola-umeak eta adingabeak garraiatzeko ibilgailua. - Salgai arriskutsuak garraiatzen dituen ibilgailua. - Larrialdi-zerbitzuko ibilgailua. - Garraio berezietako ibilgailua.	500€	*
20.1	OL	Odolean litroko 0,30 gramotik gora alkohol edo botatako arnasan 0,15 miligramotik gora litroko edukita ibilgailu bat gidatzea, gidariaren gida-baimena bi urtekoa baino gutxiagokoa izanik.	500€	*

ALKOHOLEMIA PROBA EGITERA BEHARTUTA DAUDEN PERTSONAK

21.1	OL	Istripu baten erantzule izan daitekeen gidariak edo bide-erabiltzaileak alkoholemianeurketak egin nahi ez izatea	500€	6
21.2	OL	Edari alkoholdunen eraginpean dagoenaren zantzu nabarmenak agertzen dituen gidariak, ibilgailu nahiz bizikletakoak, alkoholemia-neurketak egin nahi ez izatea.	500€	6
21.3	OL	Zirkulazio Erregelamendu Orokorra hausteagatik salaturiko gidariak, ibilgailu nahiz bizikletakoak, alkoholemia-neurketak egin nahi ez izatea.	500€	6
21.4	OL	Prebentzio-kontrol batean, agintaritza-agenteeek ibilgailu edo bizikletako gidariari alkoholemia-neurketak egin nahi izanez gero, gidariak uko egitea.	500€	6



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

SORGORGARRIAK, PSIKOTROPIKOAK, ESTIMULATZAILEAK EDO ANTZEKOAK

27.1	OL	Arrisku gabe gidatzeko behar den egoera fisikoa edo mentala aldarazten duten sorgorgarriak, psikotropikoak, estimulatzaileak edo beste antzeko substantzia batzuk hartu edo gorputzean sartu ondoren gidatzea.	500€	6
------	----	--	------	---

IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA

Zirkulazioaren noranzkoa

30.1	OL	Ezkerreko erreitik zirkulatzea, agindutako noranzkoaren kontra, bi noranzko eta bi erreitako galtzadan	500€	6
------	----	--	------	---

Zirkulazioa mugatzea

39.4	L	Trafiko agenteek ezarritako salbuespenezko murrizpenei jaramonik egin gabe zirkulatzea.	200€	
------	---	---	------	--

Babesguneak, irlatxoak edo antzekoak

43.2	OL	Plazetan, biribilguneetan eta bidegurutzetan agindutakoaren noranzkoaren kontra zirkulatzea.	500€	6
------	----	--	------	---

Abiadura moteldu

46.1	L	Abiadura ez moteltzea edo ez gelditzea, inguruabarrek hala eskatzen dutenean (oinezkoak, animaliak, hartxintxarrak,...)	200€	
------	---	---	------	--

Ibilgailuen arteko tartea

54.1	L	Aurreko ibilgailuak zakar balaztatuz gero, talka egin gabe gelditzeko besteko tartea utzi gabe zirkulatzea.	200€	4
------	---	---	------	---

Seinaleztatutako zubietatik edo lan-guneetatik pasatzea

61.1	L	Zubietan edo lan-guneetan, kontrako noranzkoari lehentasuna ematen dion seinalea ez errespetatzea.	200€	
------	---	--	------	--

61.2	L	Zubietan edo lan-guneetan, atzera ez egitea kontrako noranzkoan doan eta lehentasuna duen ibilgailuari pasatzen ez uzteko.	200€	
------	---	--	------	--

Lehentasuna-hurrenkera, seinalerik ez dagoenean

62.1	L	Ibilgailu batek atzera jo behar duenean, eta seinalerik egon ezean, ibilgailu-moten arteko lehentasun-hurrenkera ez errespetatzea.	200€	
------	---	--	------	--

62.1	L	Bi ibilgailu-mota berdinen arteko lehentasun-hurrenkera ez errespetatzea, haietako batek atzera jo behar duenean. Honako hau da lehentasun-hurrenkera: a) Atzera egiteko tarterik luzeena ibili behar duena. b) Tartea berdina bada, zabalerarik, luzerarik edo baimendutako gehieneko masarik handiena duena.	200€	
------	---	---	------	--

Aldapa handiko bideguneak

63.1	L	Aldapa handiko bideguneetan eta seinaleztatu gabeko estuguneetan, gorantz doan ibilgailuaren pasatzeko lehentasuna ez errespetatzea	200€	
------	---	---	------	--



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

Txirrindulariek pasatzeko lehentasuna

64.a	L	Ibilgailuko gidariak ez errespetatzea lehentasuna txirrindulariei txirrindu-pasaguneetan, bide-gorrietan edo bazterbideetan.	200€	4
64.b	L	Ibilgailu motorduneko gidariak beste bide batera sartzeko eskuinetara edo ezkerretara biratu behar dutenean, txirrindularien pasatzeko lehentasuna ez errespetatzea.	200€	4

Gidari zein oinezkoek lehenago pasatzeko duten eskubidea

65.1	L	Ibilgailuen pasatzeko lehentasuna oinezkoek ez errespetatzea.	200€	
65.1.a	L	Oinezkoen pasatzeko lehentasuna seinaleztaturako pasaguneetan ibilgailuen gidariak ez errespetatzea.	200€	4
65.1.b	L	Ibilgailuetako gidariak, beste bide batera sartzeko jiratzean, ez errespetatzea lehentasuna zeharkatzen ari diren oinezkoek.	200€	4
65.2	L	Ibilgailuarekin oinezkoentzako gune bat zeharkatzea, bertan dabilzan oinezkoek pasatzen utzi gabe	200€	
65.3.a	L	Pertsona-taldeak garraiatzeko ibilgailua erabiltzen ari diren oinezkoek pasatzen ez uztea seinaleztaturiko geralekuan.	200€	
65.3.b	L	Ilaran dabilzan ikasle taldeei edo antolatutako segizioei pasatzeko lehentasuna ez ematea ibilgailu batek.	200€	

Lehentasuna duten ibilgailuekin gainontzeko gidariak izan behar duten jokabidea

69	L	Larrialdi-zerbitzuan doan lehentasuneko ibilgailuari pasatzea ez erraztea.	200€	
----	---	--	------	--

GELDITZEA ETA APARKATZEA

90.2	A	Noranzko bikoitzeko herri barruko bideetan ibilgailua galtzada edo bazterbidearen eskuineko ertzetik ahalik eta hurbilen ez aparkatzea.	80€	
90.2	A	Noranzko bakarreko herri barruko bideetan galtzadaren ertzetik aparte ibilgailua aparkatzea.	80€	
90.2	A	Noranzko bikoitzeko herri barruko bideetan galtzadaren ezkerreko ertzean ibilgailuaren martxaren ikuspuntutik-aparkatzea.	80€	

Nola gelditu eta aparkatu

91	L	*Oztopoa edo arriskua zein den adierazi behar da ibilgailua gelditzean zirkulazioa larriki oztopatzea.	200€	
91	L	Ibilgailua gelditzean arriskua sortzea gainerako erabiltzaileentzat.	200€	
91	L	Ibilgailua aparkatzean zirkulazioa larriki oztopatzea.	200€	
91	L	Ibilgailua aparkatzean arriskua sortzea gainerako erabiltzaileentzat.	200€	

Ibilgailuaren kokapena

92.2	A	Ibilgailua aparkatzean, libre dagoen gainerako gunea ahalik eta ondoen erabiltzeko moduan ez uztea.	80€	
92.3	A	Ibilgailua abian ez jartzeko, arauzko neurriak ez hartzea. (Esku balazta eman gabe, motorra ez gelditzea,aldapan aparkatzerakoan dagokion martxa sartu gabe uztea,...)	80€	



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

Aparkatzea debekatuta dagoen lekuak

94.2.a	L	Ikuspen gutxiko bihurgune eta malda-gainaldeetan, horien inguruetan, tuneletan, lurpeko pasaguneetan eta "tunela" seinalea duten bideguneetan aparkatzea.	200€
94.2.a	A	Txirrindulari eta oinezkoentzako pasaguneetan aparkatzea	80€
94.2.a	A	Erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako bideguneetan aparkatzea (Bus, taxi geltokia,)	80€
94.2.a	L	Bidegurutze batean edo inguruan aparkatzea, beste ibilgailuei bira ema-tea oztopatuz.	200€
94.2.a	L	Seinaleak ikustea eragozten den tokian aparkatzea.	200€
94.2.a	A	Bidegorrietan aparkatzea.	80€
94.2.a	L	Hiriko garraio publikoarentzat bakarrik diren aparkalekuetan eta geralekuetan aparkatzea.	200,00 €
94.2.c	A	Zama-lanerako seinaleztatutako guneeetan aparkatzea.	80€
94.2.d	L	Mugikortasun urria dutenentzako erreserbaturiko guneeetan aparkatzea	200€
94.2.e	A	Espaloi gainean, eta pasealekuetan eta oinezkoak pasatzeko izendatutako gainerako guneeetan aparkatzea.	80€
94.2.f	A	Behar bezala seinaleztatutako ibi iraunkorraren aurrean aparkatzea.	80€
94.2.g	A	Bigarren ilaran aparkatzea.	80€

GIDARIEN OHARTARAZPENAK


108	L	Gidariak egingo duen maniobraz ez ohartaraztea.	200€
109.2.c	A	Trafiko-gorabeherak direla-eta, ibilgailua ibilgetu edo balaztatu baino lehen, maniobra hori ez ohartaraztea	80€
110.1	A	Hots-ohartarazpen zaratatsuak , arrazoirik gabekoak edo gehiegi egitea.	80€

ZIRKULAZIOKO BESTELAKO ARAUAK

Segurtasun uhalak eta eusteko beste sistema batzuk

		Ibilgailuko gidariak segurtasun-uhala lotuta ez eramatea.	200€	3
117.1	L			
117.1	L	Bidaiariak segurtasun-uhala lotuta ez eramatea.	200€	
117.2.a	L	Aurreko eserlekuan doazen 135 cm-tik beherako altuera duten 12 urtetik beherako pertsonak, neurri eta pisuaren arabera homologatutako eusteko sistamarik ez erabiltzea.	200€	

Tel 943.361112 Faxa 943 368167 Korr.Elekt : udaltzaingoa@usurbil.net



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

117.2.a	L	Aurreko eserlekuan doazen 135 cm-tik gorako altuera duten 12 urtetik beherako pertsonen, homologatutako eusteko sistematik ez erabiltzea.	200€	
117.2.b	L	Atzeko eserlekuan doazen 135 cm-tik beherako altuera duten 12 urtetik beherako pertsonen, neurri eta pisuaren arabeko homologatutako eusteko sistematik ez erabiltzea.	200€	
117.2.b	L	Atzeko eserlekuan doazen 135 cm-ko eta 150 cm-ko arteko pertsonen, homologatutako eusteko sistematik ez erabiltzea.	200€	
117.3	OL	Ibilgailuan segurtasun-uhalik instalaturik ez izatea.	500€	
Kasko eta bestelako babes elementuak				
118.1	L	Sidekarduna izan ala ez izan, motozikletako, hiru edo lau gurpileko ibilgailuko eta ziklomotorreko gidariek kaskorik jantzita ez eramatea.	200€	3
118.1	L	Babes-kasko homologatuak edo ziurtatuak ez erabiltzea	200,00 €	
LARRIALDIAK				
Laguntzeko betebeharra				
129.2.a	A	Zirkulazio-istripua izanda, gelditzea, beste arrisku bat sortuz.	80€	
129.2.b	L	Beren nortasuna ez jakinaraztea edo agenteei ez laguntzea, zirkulazio-istripu batean inplikaturik egonez gero.	200€	
129.2.c	A	Zirkulazio-istripu batean inplikaturik egonik, erantzukizunak zehazteko baliagarriak izan daitezkeen gauzen, aztarnen eta bestelako proben egoera aldatzea.	80€	
129.2.e	A	Zirkulazio-istripu batean inplikaturik egonda, zaurituak izanik eta abisua eman ondoren, istripuaren lekuan ez egotea edo ez itzultzea, agenteak iritsi arte.	80€	
129.2.g	L	Zirkulazio-istripu batean inplikaturik beste pertsona batzuei ibilgailuaren datuak ez ematea.	200€	
129.3	A	Trafiko istripuan inplikaturik egon gabe, agenteei nortasun datuak ez ematea, beharrezkoa denean.	80€	
129.3	A	Erantzukizunak zehazteko baliagarriak izan daitezkeen gauzen egoera aldatzea, trafiko istripuan inplikaturik egon gabe .	80€	
SEINALEAK				
Seinaleak kendu, ordezkatu eta aldatzea				
142.2	OL	Seinaleztapena baimenik gabe instalatzea, kentzea, lekuz aldatzea, ezkutatzea edo aldatzea (ekintzak zertan datzan adierazi).	3.000€	
142.3	OL	Seinaleen edukia aldatzea edo eraginkortasuna gutxitzea. (ekintza zein izan den adierazi).	3.000€	



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

Bidezainen seinaleak

143.1 L Bidezainaren seinaleak edo aginduak ez errespetatzea. (Adierazi zein izan den bete gabeko seinalea) 200€ 4

Aldi baterako seinaleak eta baliza seinaleak

144.2 A Baliza-seinalez ezarritako pasatzeko debekua ez errespetatzea. (bete ez dena zehaztu) 80€

Ibilgailuentzako semaforoa

146.a L Semaforo bateko argi gorria ez errespetatzea 200€ 4

Lehentasan-seinaleak

151.2 L Nahitaez gelditzeko seinale baten aurrean ez gelditzea (STOP) 200,00 € 4

Sarrera debekatzen duten seinaleak

152 A Sarrera debekatzen duen seinalea ez errespetatzea. (Adierazi zein den seinalea) 80€

Pasabidea murrizten duten seinaleak

153 A Pasabidea murrizten duen seinalea ez errespetatzea. (Adierazi zein den seinalea) 80€

Debekua edo murrizpena adierazten duten beste seinale batzuk

154 A Debekua edo murrizpena adierazteko seinaleari men ez egitea. (Adierazi zein den seinalea) 80€

Betebeharrezko seinaleak

155 A Betebehar-seinaleari men ez egitea (adierazi zein seinalea) 80€

Luzetarako marra zuria

167.1 L Luzetarako marra etengabea ez errespetatzea. 200€

Zeharkako marra zuria

168.1 L Zeharkako marra etena edo etengabea ez errespetatzea. 200€

Seinale horizontalak

169 L "Stop" seinale horizontalak geratzeko agintzen duen tokian ez gelditzea 200€

Beste marka eta inskripzio zuriak

170 A Lerro etengabe batek inguratutako zebra-gunean, zirkulatzeko ez den gunean alegia, sartzea. 80€

Beste kolore batzuetako markak

171 A Sigi-sagako marra horiaz seinaleztatutako gunean aparkatzea. 80€

171 A Luzetarako marra hori etengabeaz seinaleztatutako gunean aparkatzea. 80€

171 A Luzetarako marra hori etenaz seinaleztatutako gunean aparkatzea. 80€

E.D.L. 8/2004 Asegurua

2.1 Erantzukizun zibileko asegururik ez izatea. *



Usurbilgo Udala
Udaltzaingoa

TRAFIKOKO UDAL ORDENANTZA

10	A	Oinezkoentzako eremuan zirkulatzea behar den baimenik gabe.	80€
10	A	Oinezkoentzako eremuan aparkatzea behar den baimenik gabe.	80€
21.1.2	A	Zoladuran marratutako aparkamendu perimetroaz kanpo aparkatzea	80,00 €
21.1.4	A	Atoaia, atoi-erdia edo karabana herri-bidean ibilgailu traktoretik bereizita aparkatzea	80€
21.1.4	A	Hirigunean 3500 kg-tik gorako BGMa duen ibilgailua aparkatzea, baimendutako eremuetatik kanpo	80€
21.2	A	Aparkaldi mugatuko eremu batean aparkatzea, aparkaleku txartelik jarri gabe.	80€
21.2	A	Aparkaldi mugatuko eremu batean aparkatzea, aparkaleku txartelean adierazitako ordu-muga gaindituz.	80€

Tel 943.361112 Faxa 943 368167 Korr.Elekt: udaltzaingoa@usurbil.net



EKS | CSV: ZIRRIBORROA - BORRADOR

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>